

NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA GAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

UPV/EHUKO GERENTEAREN 2018ko UZTAILAREN 30eko ERABAKIA, "ARTE ETA GORPUTZ ADIERAZPENEKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA" LAN-POLTSA OSATZEKO HAUTAKETA-PROZESUA BEHIN BETIKOZ EBAZTEKO DENA. LAN-POLTSA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ALDI BATERAKO BEHARREI ERANTZUTEKO DA.

UPV/EHUko gerentearen 2017ko ekainaren 2ko erabakiaren bidez dei egin zen, "ARTE ETA GORPUTZ ADIERAZPENEKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA" lan-poltsa handitzeko hautaketa- prozesua egiteko, administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren berezko premiak aldi baterako bete daitezen.

Deialdiaren zazpigarren oinarriak ezarritakoarekin bat etorrita, hautaketa- prozesua behin amaiturik, epaimahaia ordenatu zituen lehiakideak, eta proposamen hori 2018ko ekainaren 29an eman zen argitara seigarren oinarriaren seigarren atalean zehaztutako tokietan eta, honen ondoren, deialdiak dioenari jarraiki, zerrenda igorri da Gerentziara prozesua ebazten duen behin betiko erabakia eman dezan.

Epaimahaiaren erabakiaren kontra gorako errekurtsoa aurkeztu ahal zitzaion EHUko gerenteari, erabakia argitaratu eta hilabeteko epean.

Erreklamazio egiteko zabaldutako epean ez da helegiterik aurkeztu. Beraz, Gerentziak, errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko erabakiaren bidez (otsailaren 3ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz.

ERABAKI DU

Lehenengoa.- "ARTE ETA GORPUTZ ADIERAZPENEKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA" lanpoltsa handitzeko hautaketa-prozesuaren emaitzak onartu eta behin betikotzat jotzea, epaimahaiak proposaturiko ordenazioaren arabera, 2018ko ekainaren 29an argitaratuta.

Bigarrena.- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, baina interesatuak berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke Gerentziari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezake zuzenean Bilboko administrazio-auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean. Erabakia UPV/EHUren web orrian (Administrazio eta zerbitzuetako langileak, Hautaketa eta Hornikuntza) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen epe horiek.

Leioan, 2018ko uztailaren 30ean.

GERENTEA Miren Lorea Bilbao Artetxe PSIDAD DE